

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2017 Foru dekretua, abuztuaren 3koa, aldatzen duena otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretua, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzkoa**

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretuak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zuen.

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, xedapen gehigarrietatik bigarrenaren 2. puntuan xedatutakoaren arabera, sailen egitura organikoa eta funtzionalari buruzko dekretuek zehaztuko dute zein administrazio unitatek hartuko duten foru arau horretan ezarritako eginkizunen ardura.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak proposatu du Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak gauzatu ditzala 1/2017 Foru Arauan ezarritako eginkizunak eta, horretarako, 15/2016 Dekretua aldatu behar da; hain zuzen, 6. artikuluari idatz zati bat gehitu behar zaio, eta 14. artikulua aldatu behar da.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 15/2016 Dekretuaren 6. artikuluari beste idatz zati bat gehitzea, 7.a izango dena; horren ondorioz, orain arteko 7. eginkizuna 8.a izango da aurrerantzean.

#### **"6. artikulua. Administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak**

7. Ahalik eta laguntza handiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauari, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenari, loturiko eginkizunak bere gain hartuko dituen zuzendaritzako administrazio unitateari.

8. Foru Aldundiaren arautegi organikoetan eta erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak."

Bigarrena. Aldatzea 15/2016 Dekretuaren 14. artikuluko "m)" idatz zatia. Honela geratuko da:

#### **"14. artikulua. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua**

m) Politika publikoen ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea kudeatzea, bere zuzendaritzaren eskumeneko gaitetan, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, xedatutakoaren arabera."

Hirugarrena. Dagoen bezala uztea Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretuak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, xedatutako gainerakoa.

Laugarrena. Dekretu hau indarrean egongo da onartu eta hurrengo egunetik aurrera, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 16a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua*

**JESÚS LÓPEZ UBIERNA**